

ttipi-ttapa

1992.eko Ekainak 4

87. zenbakia

dohain banatzen da



ZAHAR ETXEAK:
GUTTI eta ARAZOEKIN

Nafarroako Gobernuak, Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, bi ikerketa burutuko ditu aldiberean ekainaren bigarren hamabostaldian Baztan, Bortziriak, Leitzaldea eta Malerreko herrietan. Alde batetik, *Euskararen Egoerari Buruzko Ikerketa Soziolinguistikoa* eta bestetik, *Ttipi-Ttapa Zonaldeko Informazio Aldizkariari* buruzko merkatu ikerketa eta marketing plana.

Aipatu ikerketa, *Area-2.000* eta *Soziologi Lantegia* enpresek burutuko dute; lehenak proiektuaren koordinazio globala eta marketing planari dagokionez eta bigarrenak, soziologi azterketa lanari dagokionez.

Ekainaren 15etik uztailaren 5a bitarte, inkestatzaileak etxez-etxe ibiliko dira, behar bezala kreditatuak, ikerketaren galdetegia osatzeko.

Horrela bada, ikerketa hauek modu egokian burutu ahal izateko, guzion laguntza eskertzekoa da.

non-zer

-
- 4 AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.
-
- 7 HONTAZ ETA HARTAZ**
-
- 8 IRAKURLEAK MINTZO**
-
- 9/23 HERRIZ HERRI**
Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Bertizarana, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...
-
- 24 ERREPORTAIA:** "Zahar Etxearen eskasia nabaria da gure eskualdean"
Pello Apezetxea
-
- 26 ELKARRIZKETA:** Lesakako Andra Mari asiloko langileak: "Gure lanpostua mantentzea eskatzen dugu"
Aitor Arozena
-
- 28 KIROLAK:** "Nafarroako hainbat Herri Kirol txapelketa jokatu ziren Elizondon Olinpiadetara begira"
-
- 30 MERKATU TTIKIA**
-

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85
Tirada: 5.200 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa.: 63 11 88
Faxa: 63 12 91

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Patxi Larretxea, Pello Apezetxea, Edurne Rekondo, Bittori Telletxea **Ale honetan parte hartu dute:** Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Jon Larretxea, Txema Aldabe, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Koro Irazoki, Margari, Sara, Natalia, Txema Urrotz, J. Igarabide, Antton Erkizia, Juana Mari, Olhain Elkarte, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi eta Mattari-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa* . **Laguntzaileak:** Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernua....

Inprimategia: Gertu Kooperatiba Elkarte (Oñati)

ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa /Urgentziak...088/061 OSASUN ZENTRUAK

Elizondo.....	452367 / 580235
Doneztebe	450300
Lesaka.....	637428/637336
Leitza	510248 / 510573

KONTSULTAK

Arizkun	453039
Gartzain	580451
Oronotz-Mugaire	592024
Ituren	450183
Sunbilla	450283
Goizueta	514067
Igantzi	637755
Arantza	634131
Bera.....	630929 / 630036
Etxalar.....	635105
Urdazubi.....	599130

ANBULATORIOAK

Irun	630264/621106
------------	---------------

OSPITALEAK

Irungo ospitalea	614600
Nafarroako ospitalea	102100
SSko urgentzi zerbitzua	246750
Virgen del Camino	
erresidentzia	109400
Gurutze Gorria	226404

ANBULANTZIAK

Oitz	450242/450342
------------	---------------

DYA

Lesaka (larrialdiak).....	(943) 464622
Doneztebe (larrialdiak).....	171717

FUNERARIA

Lesaka.....	637404
-------------	--------

SUHILTZAILEAK

Oronotz-Mugaire	592044
-----------------------	--------

GARRAIOAK

Bidasotarra	630279
Baztanesa	580129
Leitzaran	515018

HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:

Elizondo	580730
Lesaka	637154
Bera	630261

ABERIAK:

Iberduero	450335/450336
-----------------	---------------

Botikak

► Ekainaren 6-7an, Bera, Ituren eta F. Iturralde (Elizondo).

► Ekainaren 13-14ean, Arantza, NARBarte eta F. Iturralde (Elizondo).

Dantzaldiak

► LESAKA, ekainaren 7an IZOTZ taldearekin .

► LESAKA, ekainaren 14ean IZADI taldearekin.

► ITUREN, ekainaren 14ean, arratsaldean, NAIGI taldearekin.

Deialdiak

► IGANTZI eta LESAKA, ekainaren 5ean, Euskara Batzordeen bilera.

► BERA, ekainaren 9an, Euskara Batzordearen bilera.

► ARANTZA, ekainaren 11an, Euskara Batzordearen bilera.

► ETXALAR, ekainaren 17an, Euskara Batzordearen bilera.

► BERA, ekainaren 18an, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen Aholkularitza Batzordearen bilera.

Erakusketak

► ELIZONDO

NAFARROAKO
ITSAS MODELISMOA

Arizkunenea Kultur Etxean, maiatzaren 31tik ekainaren 14 arte.

Antzerkiak

► BERA

Ekainaren 5ean gaueko 10etan, "TRAPUZA-HARRAK" taldearekin «Aittu sukaldea!» antzeslana, Kultur Etxean.

Bota bertsoa



Eneko LEKUONA

(Goizuetako Bertso Eskola)

Gaia: Los Angeles-eko beltzen iraultza

Neurria: Zortziko Haundia

Los Angelesen polizi batzuk beltz bat utzi erdi hila
juizioan libre geratu
haxe da juez abila
horren ondoren koloredunak
sortu dute iskanbila
polizik ere oraingo hontan
hasi jaleoa bila.

Hola segituz nik ez dut uste
egongo den erretira
egun osoak pasatzen dira
batetik jira ta bira
mundu guztia hortxen daukagu
Bush jauna zuri begira
presidentea hola segituz
ez zoaz zu urrutira.

AGENDA

Txapelketa k

LESKA

Ekainaren 13an, arratsaldeko 5,30etan, "Dantza Soltuko" Bi-nakako txapelketa, Plaza Zaharrean.

Antolatzaile: San Fer-min Jubilatutako Elkarteak.

Erromeriak

MENDAU

TRINITATE EGUNA

Ekainaren 14ean, Mendaurko ermitan urteroko erromeria burutuko da. Bazkaria urte-gian eta arratsaldean Iturenen dantzaldia NAIGI taldearekin.

Bestak

BERROETA

Ekainaren 17-21era.

ALMANDOTZ

Ekainaren 17-21era.

Ikus xehetasunak 20. orrialdean.

Gastronomia

TRIPAKIAK

Osagaiak:

2 kilo tripaki, magrak, txoria, piper berdea, piper mina, koñak kopa bat, perrexila, tomatea kilo erdi bat, aretze mutur edo pata zati batzuk.

Tripakiak ura eta ozpinean



Mikaela Goñi-k emana
IRURIBIETA Jatetxea - SUNBILLA

ongi garbitu eta puxkatu.
Egosten jarri uretan 7 or-

duz gelatina egiteko aretze muturra edo pata puxka batzuk erantsiz. Egina dagoenagaintzeko osagai guztiak ontzi batean ongi xehetuak paratuko ditugu. Gorritu direnean koñak bota eta ondoren tripakiak erantsi ezari-ezarian, gatz bota eta utzi egiten pixka batean gero kilo erdi tomatea prexistua bota eta azkenik perrexila bota.

Baserriko feria



ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kilokoa): 6.500 pzta. **Zerri gizona** (95-100): 190 pzta/kilo **Zerramak**: 105 -125 pzta./kilo bizirik.

BEHIKIA

•Aretze gizenak:
Idixkoak: Pzta/kg. Kanal Extra.....510
1.koa.....480
2.koa.....460

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal Extra.....525
1.koa.....500
2.koa.....460
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 300 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 370 Pzta /Kg. Kanal.

Aretze ttikiak

(15 egun inguru):

Nabarrak: urruxak 10.000 eta idixkoak 21.000 Pzta.
Mestizoak: urruxak 22.000 eta idixkoak 30.000 pzta.

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



MALDAERREKA S.A.

«La Suiza»

Aseguro
mota
guziak

Bittiria karrika -Tfnoa: 637404- LESKA

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIK

Legarrea 9, Tfnoa: 637030 LESKA

❖ Zure ingurua klase guztiko in-sektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo-z garbitu nahi baduzu, deitu!
Gu arduratuko gara horretaz!

Tfnoa: (948) 63 01 55

- BERA



Europako lehena
ostalaritzarako
garbiketa produktuetan

Tfnoa: (948) 63 01 55 **BERA**

BERA
DESINFECCIONES

W 11 galdera ilabur

W Zinema



Maider Susperregi
Ikaslea

- Ikasi ala lan egin? Lan egin.
- Oinarrizko ikasketak ala ikasten segitu? Ikasten segitu..
- Gurasoeekin bizi ala kanpoan? Oraingo gurasoeekin.
- Gaztetxeak ala ostatuak? Gaztetxeak.
- Bordatxo ala herriko bestak? Herriko bestak.
- San Ferminak ala inauteriak? San Ferminak.
- Pelikula on bat ala musika kontzertu bat? Kontzertu bat.
- Liburu bat irakurri ala telebista ikusi? Telebista ikusi.
- Hogeitertekin, ikastera ala parora? Ikastera.
- Gazte borrokariak ala pasotak? Borrokariak.
- Ekintzak udalak antolatuak ala zuk? Nik antolatu.

► Hasta el fin del mundo

Win Wenders
Alemania, Frantzia,
Australia - 1991

Garai batean Win Wendersen zinea ikustea nahiko modan zegoen, batez ere "Paris Texas" filmearen garaian, bere filmarik komertzialena izan bait zen: Aleman mentalitateko drama sikologiko bat Estatu Batuetako zelai haundietan aztertuta, musika egokiaz lagundua. Arrakasta haundia izan zuen eta oraindik jende askoren buruan dago argumentoa.

Zinezale eta modernoek bere lehen filmak ikusi nahi izan zi-



tuzten (nere us-tez hoberenak) baina Espainiako pantailetan ez zuten borts egun irauten, ez bait zen jenderik joaten; arraro eta aspergarriak iruditzen nonbait.

"Cielo sobre Berlin" egin zuen ondoren, hau ere nahiko saritua festibal haundietan eta atzerrian hagitz

ongi funtzionatu zuen; Espainia eta Euskadin gutti iraun zuen, ez zen ia inor joaten: ez zegoen modan eta jendearentzat konplikatuegia, bertsio orijinalan gainera.

3 ordu irauten duen "Hasta el fin del mundo" estreinatuko da laister. Wendersen azken lanak sariak biltzen ari

da munduko festibaletan. Madrilko kritikoak ezin izan dituzte deskalkifikatzeko nahiko hitz bilatu. Ikusten da kritiko hauen maila non dagoen. Almodovar, Banderas eta gutti gehiago. Madrid zuloa izan da eta zuloa izanen da.

MARIANO

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA

TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN - Tfnoa: 45 04 91



LIBURU BILDUMEN BANATZAILEA
IKASTOLA, ESKOLA, ELKARTE ETA
KULTUR ETXEETAKO
LIBURUTEGIAK OSATZEKO
BEHAR DIREN BILDUMAK

AMETS LIBURUAK

63 12 67 - BERA



**EUSKALDUNA
JATETXEA**

Tfnoa.: 63 03 92
BERA



Maiatzaren 27an, Solchagaren "dekretazo"aren kontrako huelga eguna burutu zen gure zonaldean ELA eta LAB sindikatuen deialdiari jarraituz. Sarrio, Lesakako Laminazioak eta bertze hainbat lantegitako erantzuna erabatekoa izan zen.



Erreparazea zubia moldaturik dago jada. Erromatarren garaiko zubi honek Oieregi eta Nabarte elkartzen ditu eta beronen moldatze lana 14 milioi kosta da eta Principe de Vianaren laguntzarekin.

KARMELE

KARMELE

Etxeetan turistak biltzeko eskaintzak
goraka egin du

Zonalde osoan 215 plaza



Iaz garai beretsuan 165 plaza baldin baziren ere, aurtun 215era altxatu da kopuru hori Baztan, Bortzirriak, Malerreka eta Leitzaldeko herrietan. Kopuru hortatik gehienak Baztanaldean kokatzen dira, 113 guztira, eta gainerako 102 plazak bertze hiru eskualdeen artean banatzen dira.

Turismo
Ihardunaldiak
Bertzen

Bukatu berri dira He-

rrietako Turismoaz burutu diren I. Ihardunaldiak. Bertan egon ziren Juan Cruz Alli lehendakaria, Angel Rodriguez Turismo kontseilaria eta zonaldeko zenbait alkate eta 107 kurtzillista.

Ihardunaldiak iraun zuen hiru egunetan zehar, turismo honek herrietan duen intzidentziaz, gestio eta errentabilitateaz eta baita guzi hau komertzializatzeko modu egokiaz.

INFORMAZIOA:

- ✎ Nominak
- ✎ Aseguro Sozialak
- ✎ Lan-kontratu bonifikatuak
- ✎ Enpresa berrien sortzea
- ✎ Diru-laguntzak
- ✎ Errenta Deklarazioak
- ✎ Kontabilitateak

ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
- Non:** MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L., Tfnoa: 17 55 40
- Non:** Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.



DONEZTEBEKO UDAL AKTIBITATEEN PUBLIZITATEA RADIO IRUNEN?

Harrigarria iruditut zait hau, Maiatzaren 15eko plenoaren akta irakurri dudanean.

Hilabete batzuk direla ttipi-ttapak udal guzietan moziobat aurkeztu zuen, non udalek bere ekintzen publizitatea aldizkarian ager dezaten. Udal gehienetan onartu bazen ere, gutti batzuk izan dira publizitatea egin dutenak (Bortzirietako Zabor eta Euskara Mankomunitateak, Arantzako Udala, Iturengoia) preziskidonezteben, oso interesantea bezala

ikusit zuten bertan egindako bilera batetan, horrela aldizkariak bertze diru iturri bat izateko eta udalen subentzio kopurua horrela jeisterik zegoelako.

Oraindik ttipi-ttapak 1991ko subentziorik ez du jaso udal horretatik, nahiz eta ahoz behin eta berriro erran izanen genuela. Aurtegoari dagokionez udal batzak akordiorik ez du hartu mahai gainean dagoelarik, **borondatea** bai, agertu dute berriz ere.

Orain hilabete egin zen bilera batetan M^a Jesus Perurena andereak komen-

tatu zuen benetan frogatu egin behar genuela gure irakurlea, horrela udalak, doneztebarren iritzia jaso ondoren zegoen erabakia hartu ahal izateko. Radio Irun-go entzule kopururik frogaturik al dago Donezteben hain erraz 50.000 pezetatako aurrekontua onartzeko? Ez al dute batere garrantzirik bertan gauden medioak, hau da, Xorroxin eta ttipi-ttapa bertako aktibitateak publikatzeko

orduan?. Azken 2 urte t'erditan hamostero eskualdeko etxe guzietan egoteko kapazitatea demostratutugu. Herriko jendea galdetzea bertzerik ez dago jakiteko ttipi-ttapa ezaguna den ala ez. Kasu berean al dago Radio Irun? Guk ez dugu pezetarik jaso den-

bora guzihonetan, eta orain kanpoko bati, mila bileretan denbora galdu gabe 50.000 pezeta. Eskerrik asko.



Miiren Karmele
TOLOSA ERR

ttipi-ttapa aldizkariko
publizitate arduraduna

Oharra

Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi

duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NANren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, erredakzioak bere esku izanen du horretarako eskubidea.

MOLINERO PINTURAK



Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio problemak moldatuko dizkizugu eta gainera, barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoen arabera prezioetan.


25 kg. pintura erosteagatik kamiseta bat oparizat

Eztegara 19 - 63 02 40 - BERA

OKANE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA



- Diskoak,
- Metodoak,
- Musika-Tresnak,
- HI-FI soinua,
- Soinu Profesionala,
- Ekipoen Alokairua...

Mendien aprobetxamendua eta erabilera antolatu nahi da

Proposamen zehatzak eztabaidatuko dira inguruko udalen artean

JOXEMANUEL IRIGOIEN

Proposamena, maiatzaren 19an azaldu zien mendietako alkateak, inguruko 9 udaletako alkateak eta mendietako kontzejaleak, horien artean Berakoak.

Udaletan eztabaidatuko den proposamenaren, herri guzietako zura-loteak denak batera urtean bitan sustatzeara dago. Udalek onartuko balute datorren urtetik aintzina aplikatuko litzateke. Horrela, Europatik horretarako datorren dirulaguntza aprobetxatuko litzateke -500 pztara zura estereo bakoitzeko- eta maderistak ere hobeki kontrolatuko. Beritze proposamenaren artean aipagarrienak mendietako pisten erabilera kontrolatzeko Udal Ordenantza egitea eta ahuntzen kontrolarako udal konpetentzia berriak dira.



Zaldibobo taldeak ekainaren 19an joko du Berako Kultur Etxean

Zaldibobo musika taldea Beran ekainaren 19an

Zaldibobo musika taldea, hilabete honen 19an, gaueko 10etan eskeiniko du kontzertua Berako Kultur Etxean, 'Kultur Zikloa 92' egitarauaren barne.

Aipatzekoa da, Zaldibobo taldeak ateri berria duela bere lehen diska "Basajaun" izenekoa eta

hamar kanturekin osatua dagoela berau. Taldea osatzen duten 5 musikarien artean jende ezaguna topa daiteke: Mikel Artieda, gazte beratarra, Joseba Tapia trikitilari ezaguna, Mixel Ducau abeslaria, Gallardet teklatueta eta Amorena bateriarekin.

W ttipi-flash

□ **Berako** Bestetako programaren azalean jartzeko, Argazki Lehiaketa antolatu du Berako Udalak. Lehiaketaren oinarrien artean, honako hauek daude: koloretako argazkiak (diapositibarik ez), 18x24 eta 24x30 zm. arteko taimainakoak eta ekainaren 30erako Herriko Etxera eramana. Irabazleak, 15.000 pztatako saria izanen du. Informazio gehiago, Herriko Etxean.

□ **Nafarroako** Gobernua antolaturiko "Euskal Antzerkigintzarako deialdia eta Euskal Literaturgintzako III. Lehiaketa", 6, 7 eta 8. mailakoen artean 6 ikasle bertze hainbat sari eskuratu berri dituzte; horien artean bi lehenengo sari, bi bigarren eta hirugarren sari bat.

BORTZIRI
ASISTENTZI TEKNIKORAKO ZERBITZUA

- * TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa
- * Bakarkako, kolektibo edota satelite bidezko antenak ere paratzen ditugu

Itzea 4, behea - BERA Tfnoa: 63 10 91

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 **BERA**

LESAKA

Presoen aldeko mozioa ez zuen onartu Udalak

Amnistiaren Aldeko Batzordearen idatziak PNVren aurkako botoa jaso zuen

AITOR AROZENA

PNVren aurkako botoekin eta HB eta EAren aldekoekin ez zen onartua izan azken udal batzarrean "Gobernu espainiarrak preso politikoekin darabilen jokaera salatzea eta indar guztiak gaitzestea" eskatzen zuen Lesakako Amnistiaren Aldeko Batzordearen mozioa.

Idatziak, Salto del Negroko preso politikoak burutzen ari diren gose grebaren berri ematen zuen, "espetxeratu guztien giza eskubideak errespetatuak izan daitezen" eskatuz. Azkenik, "euskal preso guztiak Euskal Herrira ekar dezatela" eta Nafarroako gobernadore zibilaria igortzea eskatzen zen mozioan. PNVk, denbora gutti zuela mozioa aztertzeke erran zuen, azken puntuarekiko desadostasuna agertuz.



Ekainaren 4ean ikusiko ditugu hirugarren aldiz herritarrek ETBko «Herriko Plazan» saioan. Ez da nolana-hiko marka.

Tantirumairu...

ikastolako zenbait taldek Nafarroa mailako sariak lortu dituzte Eskolarteko Trafiko Heziketaren VIII. lehiaketan. 3., 4. eta 5. mailakoek, bigarren eta hirugarren saria lortu dute eta 6., 7. eta 8. mailakoetan lehen saria lortu dute, estatu mailako lehiaketarako sailkatuz.



Noelia Linares, Tantirumairu ikastolako 5. mailako ikasleak lehen saria lortu zuen Nafarroako gobernuaren Euskara zerbitzuak antolatutako Euskal literaturgingizarako III. lehiaketan

W ttipi-flash

□ **Lokal** publikoen aldeko asanbladak mahai-ingurua antolatu zuen etxe okupatuak eta gaztetxeen gaia jorrazteko. Hernaniko Gaztetxeke kide bat eta Donostiako "Zapatari" etxeke okupa bat egon ziren euren eritziak azalduz.

□ **Akordeolari** bandakoe, ekainaren 7an Askairekin burutuko den "Herri Soinu" Egunean parte hartuko dute.

□ **Haurrak** ezin hobeki pasatu zuten maiatzaren 24ean. Plazan koltxoi puztuak, ohe elastikoak eta herrian barrena lokomotoran ibiltzeko aukera izan zuten.

□ **Binakako** dantza Soltuko txapelketa antolatutako San Fermin elkarteak ekainaren 13rako.

□ **Indiako** zirkoa etorri zitzaigun maiatzaren 31an.

IRUBIDE

**OSTATUA
ERRETEGIA**

Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

**XATURETXEA
FONDA**

Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

EROSLE


Tfnoa: 63 72 64 - LESAKA

**Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena
Frexkuena zugandik hurbilago**



★ **KIXKUR** ★
ILEAPAINDEGIA

Bittiria Tfnoa.: 637429 - LESAKA



**GOIZUETA
KIROLAK**

**Kirolak
Mendirako artikuluak**

Beheko Plaza 10 LESAKA

Herriko Etxe izana moldatzeko 18 milioi behar Udalak

Bertzalde, Kultur Egunen barnean, igande honetan I. Gasna Lehiaketa eta herri bazkaria

PELLO APEZETXEA

Erretorene ondoko etxea, ehunka urtez Herriko Etxea izana, aspaldi konpontzekotan dago. Duela lau urte teiltua berritzeko laguntza eskeini zuen Nafarroako Gobernuak, baina, iduri duenez, teiltua baino lehenagoko konponketak egin beharrean dago, etxeari eusten dioten pilareak berak ere berrituz. Hori horrela, konponketaren kostua 18 milioitara iganen da. Gobernuari iaz laguntza eskatu bazitzaion ere, urte horretako sosa dena gastatua zegoela erantzun zuen; horregatik berritu egin du orain eskaera Udalak.



Herriko Etxea izana moldatzeko momentuz ez du dirulaguntzarik emari Nafarroako Gobernuak

Etxeak moldatzeko zura

Baztanen Bordako Jose M^{te} Danboriena, Zabalteko Karmele Indaburu, Axularko Benantzio Iparragirre, Olaindegiko Bordako Jesus Arribillaga eta Ar-

buruko Birjina Arburua izan dira azkenaldian beren etxean konponketak egiteko zura Herriari eskatu diotenak eta honek baietsiak. Haritzetik 5m³ko baino gehiago ez, herriko Ordenantzaren arabera.

W ttipi-flash

□ INEM-en laguntzaz bi langile hartu ditu Udalak Eskola zaharrak eta Herriaren bertze zenbait etxe moldatzeko lanetan aritzeko.

□ Herriko bestetarako orkestak kontratatatuak izan dira dagoeneko, denetara 900.000 pezeta ordainduko direlarik. Jan eta lo, euren kontura.

□ Behiak eta ahuntzak mendia kaltetzen ari dira. Nafarroako Gobernuak berriki hartutako erabakien arabera, ez behirik ez ahuntzik ez da menditan ibiltzen ahal. Ibiltzen segituz gero, Udalak harrapatu eta ekarriko ditu.

ARRATZUBI ardotegia

Tfnoa.: 63 72 79
Bittiria karrika - LESAKA

EKAITZA CAFE

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Lagunekin elkartzeko toki egokia

Tfa: 948 - 627547
Plaza Berria 13 - LESAKA

«U S O A»

NEKAZARI KOOPERATIBA

Ganaduarentzat
pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14

ETXALAR



BOAN TAILERRA

CITROEN Banatzailea

KOTXE BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA
Herriko Etxeko Plaza - BERA

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIGINTZA
OPARIAK
BURDIN TRESNERIA
Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA

KOXXKONTA



Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA

Sagardotegia Erretegia

Ezkontza,
bataio, bileratarako
leku egokia
(200 pertsona)

ARRANO



OSTATUA

Legarrea - LESAKA

IGANTZI

Jende aunitz San Isidron kooperatibak antolatutako bestan

Igantzi eta Arantzako 90 lagunek eman zuten izena bazkarirako



Arantza eta Igantziko nekazariak



Juan Etxeberria eta "Xiga" Sunbillako alkateak emandako saria jasoz

OSKAR TXOPERENA

Jendetza polita bildu zen San Isidro egunean Igantzi eta Arantzako Nekazal Kooperatibak antolaturiko bestara. Lehendabiziko meza bat izandu zen eta ondotik eginiko bazkarirako 90 lagunek eman

zuten izena. Musika ere ez zitzaien faltatu arratsaldea alaitzeko.

Mus txapeldunak

Juan Etxeberria eta Juan Arretxea "Xiga" suertatu ziren garaile Arkupeak elkarteak Sunbillan zonalderako antolatu zuen mus

txapelketan. Hementxe dituzue pozik beren sariak hartu ondotik. Zorionak.

Eugi txapeldun

Elizondon izandako Nafarroako lasto altxatze txapelketan hiru igantziarrek hartu zuten parte bakar bakarrik, gainera arerioak

ez bait ziren agertu. Txapelduna, Eduardo Eugi, Miguel Angel Etxarte gelditu zen bigarren eta Luis M^a Zelaieta hirugarren.

□ Udaletxeko bulegoak goizez bakarrik egonen omen dira irekiak ekainetik irailera bitarte.

SAROB
okindegia



SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

ALBATETXEA

JATETXEA

Alicia eta Carmenek zuzendua

Antoiu 26 - Tfnoa: 627622

LESAKA



KIROLAK ZELA

Altzate 6, Tfnoa: 63 05 98

BERA



KATTU

OSTATUA
JATETXEA

- Karta
- Eguneko menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 **LESAKA**



ETXEGARAI
BIDEO KLUBA

Telebista eta Bideoak
Antena kolektiboak eta
banakakoak
Konponketa tailerra

Eztegara 4, Tfnoa: 63 05 70 - BERA



S. Semper

Nekazal Tresneria

Salmenta eta konponketa tailerra

Ergoien auzoa, Tf.: (943) 490619 - OIARTZUN
BERAn, 631238 Tfnoan, Agerra Industrialdean

Pilotalekua bestetarako prest egonen da

Honezgero, aurrekontua 4.600.000 pezetatan garestitu egin da

JON LARRETXEIA

Kontratistarekin 4 milioiko igoera negoziatu du udalak, teilatuko estrukturan jarriko diren zuren garestitzea dela medio. Nonbait, teilatuko estrukturan alde jarri behar diren zurak izugarri garestiak dira, eta horretarako zegoen aurrekontua ez da nahikoa. Pentsatu zen baita, material horiek burnizkoak jartzea bainan horrek ere hagitz gutti merkatzen zuen kostea. Ondorioz, udalak egoki ikusi du negoziaketan sartzea, alde batetik, aipatzen diren arrazoiak bidezkoak direlako eta bertzetik, hasieran firmatutakoari eusterik baldin bazuen ere, kontra-



Pilotalekua estaltzeak bentaja ederra ekarriko dio herriari

tistak obra gelditu eta aldegin zezakeelako, ondorioak latzagoak izanik horrela: juizioak, bitartean obra geldirik eta diru eta denbora pila gastatuz.

Halere, orain egin duten hitzarmenarekin, la-

nak bestetarako akabatuak egonen direla segurtatzen da.


Gainerako seirehun mila pezetak, pilotalekua-ren argi sisteman sartu diren hobekuntza batzuen-gatik izan da.

W ttipi-flash

□ **Ura** lurrarentzat ongi etorri bada ere, erauntsiek pistetan egin dituzten kalteak haundiak izan dira. Ondorioz, eta pistak enbreatzeko laguntza gibelu dutenez, mendietako kontzejalak dei bat egitea eskatu zigun, "eta bideak moldatzeko auzolan ahalgin bat egitea beharrezkoa dela, udalak materialak erosterakoan laguntza emanen duelarik".

□ **Kukubiltxo** antzerki taldeak, euria zela eta, ez zuen bere lana eskeintzerik izan. Halere, bestetan etorriko omen dira.

□ **Objetore** eta intsumisoen aldeko mozioa onartu zen ahobatez.



San Esteban 37, Tf: 631063 - BERA

HAUR
JANTZIAK
OINETAKOAK
ETXERAKO
ZAPATILAK

Errekalde ostatua

Ortizraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630529 - BERA



Loradenda, bitxikeriak,
opariak, eskulangintza

Bittiria, Tfnoa: 62 75 42
LESKA

Juan Meoki naiz:

Balin baduzue trasteak etxe barrenean edo ate ondoan eta buruko mine maten badazue hek ikusteak, abiso emanazue Iruritako telefono hontara

45 20 35

eta kendiko dut gusto ederrean eta ezautzen garelaik seguro nago, zuek eta ni izain garela betiko lagun ederrak.

Zuek hor zate, ni hemen nago. Zuen deia esperuan nago. Biher baino neretako gaur hobiago.

SARA

Sarako Itzuliaren edizio berria ekainaren 21ean

Ibilaldiak 9 eta 12 orenen arteko iraupena izaiten du

OLHAIN ELKARTEA

Ohidura den bezala azken 3 urte hauetan ekainaren hirugarren igandean Sarako Axuria Mendizale Elkarateak antolatu du Sarako Itzulia - 92. Ibilaldi hori asmatua izaitu zen 1989an Tolosan lau urte-tarik egiten den 14 orduko ibilaldiaren antzean. Aurten Axuriako hamar bat partaidek burutu dute Tolosako ibilaldi hori eta erran daukute biziki zaila zela, baina ongi apailatua. Txalorik beroenak Luxien Bertizbehareari, mutil gazte honek mereximendu haundiekin bere 14 orduak bete bait ditu eta hori entrenamendu izpirik gabe.



Urtero bezala, Aurten ere Axuria elkarateak antolatu du Sarako Itzulia

Aupa Luxien, segi aintzina.

Sarako itzuliaren luzetasuna 9 eta 12 orenen artean dago, baina zer plazerra muga ixkin huntako tontor, bixkar, oihan eta bidexken goratzea. Beraz,

ahal duten guzietan hitz ordua ekainaren 21ean Saran. Izen emateak, telefonoz egiten ahal dira, 59 54 25 26 zenbakian, 20 libera edo 400 pezetan alde. Abiatzeko tenoreak baitetzpada betebeharrak dira

(goizeko 7ak eta 8ak artean). Heltzeak, berriz, arratsaldeko 4ak eta 8ak artean izanen dira Sarako plazan. Ibilaldia burutuko dutenei (ahalaz denboretan barne) agiri bat emana izanen zaie.

BELARRA Kafetegia

Plater konbinatuak

Amezti 3, Tf.: 45 03 06 - DONEZTEBE



SANTAMARIA

Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneroko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

LUR BERRI



coopérative agricole

64310 SARA

Tfnoa: 59 54 20 13

IDEKIDURAK:

Goiz guziz (astelehenetan salbu) 8,45etatik 12,00etara
eta astelehen arratsalde 14,00etatik 18,00etara

ZORIONGARRIAK—ALIMENTA ETA ARTO HAZI

OHARRA:


Ekainaren 10etik 17 arte %10eko prezio apaltze berezia artikulu hauen gainean:
Mahaxelgintza eta bertze onkailu eta hazietatik aparte.

Zubi berriaren lanak nabarmentzen hasiak dira

Bestetarako kotxeak pasatzeko moduan egonen dela pentsatzen da

JOSUNE eta IXABEL

Martxa bizian ari dira lanean eta espero denez, herriko bestetarako kotxeak pasatzeko moduan egotea espero da. Zubi honek bi pilare izanen ditu errekan eta hasieran 19 metrotako zabalera ematea pentsatu bazen ere, azkenean, 16,50 m. tako zabalera izanen du. Karretera nagusiarekin egin beharreko lotura, bertalde, saihezbidea martxan jarriko dutenean moldatuko da definitiboki, kotxe gutiago pasatuko baita orduan.



Zubiak bi pilare eta 16,50 metrotako zabalera izanen du

□ **Lehendabiziko jaunartzea** egin zuten maiatzaren 14ean 12 hurrek: Amets Inda, Marta Petri-

na, Maria Arretxea, Iosune Mikelarena, Iosune Izagirre, Ana Arretxea, Enrike Arretxea, Mikel Alman-

doz, Gaizka Elizalde, Xabier Petrirena, Joseba Apeztegia eta Iñigo Anzizar.

□ **Baserrietako** pistak ormigoiztatu nahian dabil udala. Zehazki Mendaur alderakoa bata, eta baita Meaka eta Aritzeder auzoetakoak. Denetara 8 kilometro eginen dute.

□ **26 gazte** sunbildarrek konfirmazioa egin zuten maiatzaren 30ean.

□ **Sunbildarrak** irabazi zuten Lesakan egin dako sokatira semifinala tirada bakar bat galdu gabe.

LEGASA


Fabrikara joateko zubi berria egingen da

Proiektuak, 88 milioetako aurrekontua du

«Laminaciones de Lesaca, S. A.» enpresak Legasan duen fabrikara joateko zubi berri bat egiteko asmoa du Nafarroako Gobernuko «El Río» jatetxearen ondoan. Zubia egingura, Laminacionesek berak emanen dituen metalzko tuboz egingo izanen da eta proiektuaren aurrekontua 88,2 milioi peze-

takoa da. Modu honetara, oraingo zubian eta bidean bertatik pasatzen diren pisu haundiko kamioiak sortzen dituzten kalteak nolabait ekidin edo ebitatu nahi dira.

Zubiaz gain, Irun-Iruña errepidean rotunda bat egingen da Legasarako sarrera-irteerak errazteko eta beharrezko segurtasun neurriak izateko.



IRAGARKI HAU 5.200 ETXETAN SARTU DA

ZUREA ERE SARTUKO DA
PUBLIZITATERAKO
ttipi-ttapa ERABILIZ GERO



AMEZTIA
Jatetxea

Espezialitatea euskal
sukaldaritzan eta pintxoetan
Tf: 450028 - DONEZTEBE

BEINTZAko
OSTATUA

Tfnoa: 45 00 14
BEINTZA - LABAIEN

DONEZTEBE

Nafarroako XVI. Odol Emaileen Eguna ekainaren 7an

Eskolako frontoian, 1.500 lagunendako bazkaria eskainiko da.

TXEMA ALDABE

Goizeko 10,30etan Herriko Etxe atarian egingen den ongi etorriarekin hasi eta arratsaldeko 9etan autobusen itzulera egin arte egitarau hornitua prestatu du Nafarroako Odol Emaileen elkarteak, Doneztebeko udala eta dagoeneko apuntatu diren 28 lagun, laguntzaile izanen direlarik egun hortan sor ditezkeen gorabeherak moldatzeko.

Programa

11etan Bearzana pilotalekuan meza, Elizondoko abesbatzak kantatua.

12etan, elizan ohizko batzar orokorra eta karraketan txarangak, txistulariak, zarpantzar, etab...

Eguerdiko letan musika jole guziak pilotalekuan elkartuko dira.

2,30etan eskolako frontoian, 1.500 lagunendako bazkaria.



Elizagibela karrika asfaltatu dute berriki

Arratsaldeko 5,30etan, Bearzanan bi dantza talde, herri kirolak, trikitilariak, akordeolariak, joteroak, etabarrek eskeinitako jaialdia eta leku berean, arratsaldeko 7etan dantzaldia 9ak arte.

Aipatzekoa Doneztebek ordezkatzan duen zonaldean badirela 140ren bat odolemaile eta aurten bertako bati, Salvador Arozenari eta Lekarozko fraile

bati emanen diote Urrezko domina, beraiek hogeina litro odol eman baitute dagoeneko. Doneztebeko delegatua, Juan Carlos Arregi da eta inguru honetan, Lesakan, Beran eta Elizondon ere badute beraien delegazioa.

Aldapa-aundi parajeen egindako errepoblatzioaren egoera txarra ikusirik, berriz ere landatzea eskatu du Udalak.

ttipi-flash

LAB eta ELAK maiatzaren 27rako konbokatu zuten greba ia-ia erabatekoa izan zen Donezteben.

Arkupeak Elkarteak ekainaren 9tik 18ra Portugal eta Galizan barrena bidai antolatu du. Bidai zoragarri honek 45.500 pztako kostoa izanen du.

Udalak eman dituen dirulaguntzak: 50.000 pztza Bianako Erentzun ikastolarendako, 200.000 pztza Arkupeak Elkarteari maiatzaren 30ean egin zen laugarren adineko omenaldian gastuak ordaintzeko eta 5.000 pztza Herri Urratseri.

Kotxe garbigailua paratuko du Donezteben Santiago Arnedok.

Berdeguneak zaintzeko eta garbiketaz arduratzeko Udalak Manuel Elizaga Urtxipia kontratatu du 6 hilabeterako.

MariCruz
LENTZERIA
Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE

IBARROLA
HAURRENDAKO ARROPA - MERTZERIA
Parrokia 6, Tfnoa: 45 04 63 - DONEZTEBE

Estilo propioz egindako arropak
San Migel auzoa 27, 45 08 83 - DONEZTEBE
Arropak

ASKIN OSTATUA
Bokadillo eta Plater konbinatuak
Elizagibela, Tfnoa: 45 00 52 - DONEZTEBE

Trinitate eguna ekainaren 14ean ospatuko da

Erromeria honen hirurehungarren urteurrena beteko da aurtan

IBAN ISASI

300. urteurrena betetzen du aurtengoan Trinitate egunak. Hirurehun urtez aldaketa ugari eman dira baselizan: konponketak tximistengatik eta ia urteroko pintatzeak jantzi berria jartzen diote. Aurtengoan ere bezperan, larunbatean, enbaltsera goratzeko asmoa dute bertako gazte talde batzuk. Hurrengo egunean, goiz goizetik hasiko da jendea ton-torreraino igaiten. Aipatu baita, mezak betiko ordue-



Tradizio haundiko erromeria bihurtua da Trinitate Eguna

Artiboa

tan izanen direla. Mendaurretik jautsi ondotik ba-

zkaria izanen da urtegian. Izena betiko tokietan eman

daiteke. Arratsaldean eta dagoeneko herrian, dantzaldia egonen da *Naigi* taldearekin. Ongi baino hobeki pasa ezazue.

AEK barnetegia

Hurrengo udalbatzararrarte seguru ez bada ere, AEK eskatua du horretarako baimena. Aurtengoan ere uztaila eta abuztuan izatea nahi dute antolatzaileek. Aurreko urteetako balantzea positiboa izan da, Iturenara etorritako euskara ikasleak hizkuntzan murgiltzea lortu bait zen.

ZUBIETA

Ostatuaren gestiorako deialdi berri bat egin behar da

JUAINAS

Jirabiraka omen dabila mundua, hala bedi. Hurrengo pasadan eman beharko dugu **ostatuaren gestioa**. Aurkeztu edo presentatu zirenak negoziaketetan hasi nahi bait zuten eta legezkoa denez gero, deialdi berri bat egin behar da, maiatzaren ondarreko larunbatan, modu eta mannerak eztabaidatuko direlarik.

Idazkari edo sekretario berriarena martxan darrari ere. Oraingo hontan euskalduna lortu nahirik. Horrela bada, laister iku-



Artiboa

siko ditugu udal paperek 20 duroko euskara batuzko hitzez josirik. Momentuz, dena den, ostatuarena bezela sobre eta paper ga-

raian gaude, nahi duenak ekartzen duela eta gero azterketa. Gauza bera **euskara teknikariarekin**. Oitzko udalak kargua duela

mankomunitatea gauzatu arte.

Eta denak ados jarri bagina bezela ikasleek azterketez beterik. Zenbait irakasle tokatuko zaien azterketen izua, lanpostu gehiago lortzeko greba eginenez eta guztiak dekretazoaren kontrako greba orokorran.

Zubietan landalanak aurreratuak zirela eta belarrik egiteko probextu zuten batzuk, neguko egurrarako erauntsiaren kalteak moldatzeko, etabar besteak. Hogeitazortzian, euria!!!

Herritik autobidearen sarreraraino, bide on bat eskatzen dio Udalak Gobernuari

ANTTON ERKIZIA

Maiatzaren 13an Leitzako Udalak izan zuen batzar berezian, aipamen bat merezi duen honako gai hau tratatu zuten, besteak beste: Gipuzkoa - Nafarroako autobidea Aresoko bidegurutzetik pasatzen da, baina Leitzako herria eta

hemengo industria bazter batetan gelditzen zaizkio. Hori horrela, Areson doan sarrera-irteera Leitzaraino eta Sarrioraino luzatzea eskatzen dio udalak Nafarroako Gobernuari. Tarte-ko bide hori zabaltzea eta zuzentzea, alegia.

HB eta Barberiaren proposamena izan zen, eta

Udalak ahobatez onartu zuen eskaera, guretzako hobekuntza izugarria suposatuko duelakoan.

□ **Hertzainak** gazte musika taldea heldu da, ekainaren 20an, IK Aren eskutik. Plazan joko dute.

□ **Herriko intsumiso** eta objetoreak izan zuten lehen bilera-afaria nahiko

desastrea izan zen. Hurrengo deialdia ez omen da hain itxia eta hain "matxista" izanen.

□ **Bi proposamen** aurkeztu dira, Leitza - Areso - Larraungo zabor bilketaren subastara. Bi taldeak inguru hontako jendez osatuak.

Ikusgai eta ikasgai...

gertatzen ari da Joxemiguel Elosegiren "Leitza Txiki" maketa bikaina. Jende ikaragarria ibili zen ikusten, Udaletxeko aretoan, Kultur Astean.

Leitza inork baino hobeto ikertu eta ezagutzen duen gizon baten urtetako lana da. Baina ez da hori bakarrik. Lan hori askorentzat ikasgai ere gerta lekiok. Batipat, kaleta-

rrantzako, eta zer esanik ez, eskoletako umeentzat. Geografiaren ikasgaia bakoitzaren herritik hasi beharko luke.

Tajo ibaia edo Gredos mendiak non dauden ikasi genituen, baina Sarasain edo Biuztain leitzarrak non dauden ez, edo nondik joan Urepelera. Hortxe dago maketa. Zuku asko ateratzen ahal zaio lan horri.



Tolosako Banda hemen izan genuen Kultur Astean, eta lagun zahar askok elkar topatu zuten. Negar malko eta guzti. Izan ere, hamabost urtez izana da musika banda hau gurekin pestatan, eta horrek uzten du marka franko. Frontoian jotzen ari zirenean, begira zer nolako indarraz eta gogotik ari ziren, lagunartean, maiatzaren 24an.




Salto del Negro kartzelako euskal presoek egoera salatzen asmoz, ekitaldi batzuk burutu dira Leitzan ere. Horietako batean, enkartelada haundi bat burutzen ari zela plazan, J.A. Bergara margolariak bere pintura kuadro bati su eman zion (ikus daiteke argazkian, erdi erdian), presoek egoera larria bere erara ere publikoki denuntziatu nahizik.

Herritar asko Eskolarteko VI. Bertso Lehiaketan

Bestalde, Jose Ramon Intxausti suertatu zen Goizuetako XIV. Crossaren irabazle

ESTEBAN AROZENA

Goizueta, Leitza, Bete-lu eta Larrauneko eskolarteko haurrek parte hartu zuten maiatzaren 22an Leitza burutu zen Nafarroako Eskolarteko VI. Bertso Lehiaketan. Azken urteotan bezala, aurtan ere puntako lana egin zuten Andres Narbarte "Xalto"ko ordezkariak. Dena den aitortu behar da bat batean ihardun zutenek (lau oinak emanda), ez zutela lehen postuetan sailkatzerik lortu, baina bertso idatzietan 4, 5 eta 6. kurtsoetako lehiaketaren irabazleak Goizueta-Aranokoak suertatu ziren, hain zuzen, Oihana Lujanbio, Eneritz



Jose Ramon Intxausti, 30'03"tan jarri du marka berria, orainarte Joxe Apalantzak zuen denbora hautsiz. J. ARANBURU Arg.

Arozena eta Maitane Lejarrera. Hauetaz gain, Mikel Etxeberria, M^a Jose Albistur, Ainhoa Ansa, Andoni Zubiri, Eider Loiarde eta M^a Loiarde ere lehen postuetan sartu ziren.

XIV. Crossa

Jose Ramon Intxausti lasterkari ezagunaren eskuetan dago Goizuetako Crossaren marka berria 30'03"tan, bera izan baitzen maiatzaren 17an buru-

tu zen edizioaren irabazlea; esan dugun bezala orain arte Jose Apalantzak zuen denbora hautsiz.

Sari onak zirelako edo, partaidetzak gorakada dexentea izan zuen kanpotarrei dagokionez behintzat. Hala ere, inoiz baino herritar gutxiago ikusi ahal izan genituen XIV. edizio honetan.

□ Herriko pestatarako prestakuntzak hasiak dira dagoeneko eta musikari dagokionez aurrera genezake, Arkaitz, Basakabi, Bries, Izadi eta Gaubela taldeen esku egonen direla aurtengo dantzaldiak. Bost talde hauen aurrekontua 1.305.000 pezetatkoa da.

ARESO

Autobiaren inpakto bisuala jeisteko 95 milioi behar dira

Oraindik onartu beharreko proiektuan, ezpondan arbolak eta landareak sartzea ikusten da

JUANA MARI SAIZAR

Autobia eraikitzeke egindako ezponda batek Aresoko herrigunean sortzen duen "inpakto bisual gogorra" gutxitzea 95 milioi inguru kostatuko zen. Horrela agertzen da behintzat, Nafarroako Gobernuaren Herrilan sailak eskatutako informe batean.

Bertan, ezponda gaur egun dagoen bezala uztea eskatzen da, baina exkabazio eta sobranteentzako

zabortegi gehiagoren beharrik gabe eta ezpondaren gainaldean landareak eta arbolak sartuz.

Proiektua egin duen ekipoak, garestia dela onartu du baina "emaitzak, gaur eguneko paisaiaren egoera asko hobetzen dute eta autobiaren presentzia fisikoa herrigunearen zati haundi batean maila moderatu batean gera daiteke", beti ere proiektua idatzi dutenen arabera.



Baztanen udako giroa nagusitzen ari da

Baztandarra kooperatibak instalazio berrien inaugurazioa egin zuen maiatzaren 29an

JOSEBA

Baztanek udako giroa hartu du. Jendea belarretan lanean eta bestetan pentsatzen. Berroetako bestak, ondoren Almandozkoak, Arizkun eta Erratzukoak ditugu ekainean.

Instalazio berrien inaugurazioa

Baztandarra Kooperatibak, maiatzaren 29an zabaldu zituen instalakuntza berriak. Bertze denda berri bat jarri du. Ekainaren 1etik goiti eta hamabortzero kooperatiban izanen da azienden jatekoari buruz eta esplikatuko duen teknikaria.

Bildots kanpaina bukatu da

Bildotsaren kanpaina akabatu da. Oraindik balantze ekonomiko egin ez bada ere, esneak bertze urtetan baino prezio apalagoa izan duela eta artileak arras salmenta txarra izan duela aipatu behar. Artzaien egoera nahiko kaxkarra agertzen da, modu tradizionalan ari direnak behintzat. Irtenbide bezala, batzuk gasna beraiek egin eta saltzen hasi dira.



Nekazariendako dirulaguntzak

Ekainaren 7a bitarte mendiko nekazariak izateagatik laguntzak eskeiniak ditu Nafar Gobernuak. Jendea pasatu dadila Diputazioko bulegoetatik.

Bestak Berroeta eta Almandotzen

Berroetan 5etik 8ra. Larunbatean Kantaldia Nafarroa eta Euskalerriko kantu txapelketako irabazleekin eta Jon BERGARETXEekin. Igandean Herri Kirolak: proba konbinatuetan Arraiotz, Amaiur eta Basaburuako taldeak eta segidan Arpana desafioa

emakumeetan, Sunbilda-rrak Baztandarren kontra. Hurrengo asteburuan erre-fetak eta bertso saioa Lazkano, Murua, Mendizabal eta Telleriarekin. Igandean herri bazkaria. **Almandotzen**, 17tik 21era. Bezperan Gazteendako Afaria, 18an Meza Nagusia eta hameketakoa trikitilari-ekin. Arratsaldean emakumeen Pala partidua eta bertsolariak. Gauez dantza konkurtsoa. 19an Mus Txapelketa, Zikiro Jatea eta Haur Jokoak. 20an Tiro al Plato eta gauez Txomin ARTOLA eta Amaia ZUBIRIA. 21ean pilota partidua.

W ttipi-flash

□ **Arizkun** eta Erratzun edateko ura kloratu gabea dagoela eta, Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak 501.000 pezetatiko multa jarri dio Udalari. Udalak bere alde-tik, multa dela eta errekur-tsoa sartzea deliberatu du eta horrek emaitzarik ez balu emanen, Erratzu eta Arizkongo herriak ordain-du beharko dute 501.000 pezetak.

□ **Narbarteko** Kontzejuak Baztango Junta Generalari Zeberiko erre-katik ura hartzeko eskariari ez zitzaion kontestari-ekin eman.

□ **Almandozen** gau-pasa izanen da hilaren 13an Inguma taldearekin.

□ **113** agroturismo pla-za daude Baztanen, gero eta eskari gehiago daude.

□ **Baigorri** maiatza-ren 31an izan zen Ehizi zakur feria. Bertara hainbat baztandar hurbildu ziren eta zakurrari lanean nola erakusten zaion ikusi zu-ten eta erosi nahiz zuena ere bazuen aukera.

ERLOJU eta BITXI DENDA



ARRIETA

KIROL TROFEOAK

Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO



«La Suiza»

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

**Udako arropa eta jantzi-
etan
behar duzun guzia**

Miguel Sanz-en bisitaldia izan ginuen maiatzaren 21ean

Zenbait baserriren afera azaldu zitzaion Nafarroako Gobernuaren lehendakariordeari

MARGARI ETA KORO

Karriken konponketari eta depuradora berriari onespina emateko maiatzaren 21ean etorri ziren Nafarroako Gobernuko Lehendakariordea eta bertze kargu zenbaitzuk.

Okasione hau aprobetxatu nahi izan zen herriak duen arazo bat hurbildik jakinarazteko: inguruan dauden 58 baserriren etorkizuna. Baserrri hauek Zugarramurdiko etxeen izekizunak dituzte; eliza kontuz Zugarramurdikoak egiten dire; biztanleak Zugarramurdiko zentsoan sartuak dire; Zugarramurdiko kanposantuan lurperatzen dire; Udal-zinegotzi bat



Miguel Sanz, Nafarroako Gobernuko lehendakariordearen bisita probetxuz, herriaren arazoak zuzenki azaldu zitzaizkion

baserrri hoietako batekoa da... baina baserrri hauek Baztangoak omen dire.

Aspalditik ibilki dire bueltak afera honekin. Gobernura, Tribunaletara, eta ez da deus argitzen. Bainan baserritarrek garbi

dute eta hau jakinarazteko egun honetan jautsi ziren herritar beronek zuzenki Gobernuari erraiteko berriak eta beren lurak Zuamurdiarrak direla. Ainarako lepoan 43x6 metrotako pankarta bat jarri

zen ("Baztanen ez"), elizargietan bertze bat ("Gure baserrriak Baztangoak ez") eta herritar multzu bat bildu zen plazan baserritarrei beren laguntza eskeiniz. Ikusi beharko nola bukatzen den arazo hau.

OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRI

ARROPA DENDA



CERVANTES HELVETIA SEGUROS



Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia



JATETXEA

Tfnoa.: 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza



FOTO ZALDUA

ZURE EZKONTZARAKO

FOTO eta BIDEO
Erreportai on bat

ELIZONDO ☎ 580491
DONEZTEBE ☎ 450364

MARKOEN TAILERRA eta zure
karreteak ORDU BATEZ REBELATZEN
DITUGU "FUJI" kalitatearekin.

Beatriz Lurrindenda

Garantia osoko produktuak
aurkituko dituzu

Perfumeak, Kosmetikoak, Bitxiak, Poltsoak, Oparitzeko artikuluak

Santiago 53, Tfnoa: 58 02 83 - ELIZONDO

ESTHER LORADENDA

Eskakizunak garaiz
egitea gomendatzen dugu
Bergara auzoa, 580971-ARIZKUN

IPARLA KIROLAK

• Kirolak orokorki
• Ekipamenduak eta trofeoak
Santiago 51 - Tfa: 58 05 85
ELIZONDO

URDAZUBI

Dantxarineako nazioarteko zubia haunditzeko asmoa dago

Horrela adierazi zuten Nafarroako Gobernuko ordezkariak berriki egindako bisitaldian

ALIZIA OLAIZOLA

Nafarroako Gobernuko Obra publikoetako sailak Dantxarineako nazioarteko zubia haunditzeko asmoa duela adierazi zuen Miguel Sanz, Nafarroako Gobernuko lehendakariordeak maiatzaren 21ean Urdazubi eta Zugarramurdiko egindako bisitan.

Aintzinetik aurreikusia ez bazegoen ere, Urdazubiko lezeetaz aritu ziren. Udalaren asmoetan, momentuz partikularrak diren leze hauek erostea dago

turismoarentzat interesgarriak izanen direlakoan, beti ere instituzioetako laguntzarekin. Sanzek bere aldetik, bertara iristeko bideen moldaketa Nafarroako Gobernuaren plangintzaren barnean sar daitezela adierazi zuen, aintzinetik lezeak erosiak badaude.

Herrian eta Zugarramurdin egindako obrak, 124 milioietako gostarioa izan omen dute.

□ **San Isidro** egunean, bazkaria egin zuten neka-



Sanz, Urdazubi eta Zugarramurdiko alkateekin bildu zen ONDIKOL

zariak Armuan. Lehenik meza entzun zuten Alker-

din, San Estebaneko ermitan, Don Justinok emana.

molino

OINETAKOAK

Zure oina zabala edo problematiko bada, neurrira egindako oinetakoak baina hobeak aurkituko dituzu, moda modakoak.

P^a Colon 29, 943-611266
IRUN

IRAGARKI HAU 5.200 ETXETAN SARTU DA

ZUREA ERE SARTUKO DA
PUBLIZITATERAKO
ttipi - ttapa ERABILIZ GERO

G.M.G.

GAMARGA S.A.

MARMOLAK, GRANITOAK, HAREARRIAK

121 errepide nazionala, Oharrizko bide-gurutzea
Tfnoa.: (948) 58 05 43 IRURITA

- ✓ Sukalde eta komunetarako entzimerak
- ✓ Etxe aintzinaldeak eta pieza ttikiak orohar
- ✓ Kanposantutarako lanak (Hilarriak...)

m
FOTO
MENA
ELIZONDO

Ezkontzetako
erreportaiak
argazkiak eta
bideoa

Tfnoa.: 58 01 55 - Santiago 40
ELIZONDO

Eta orain, zure
koloretako argazkiak
ORDU BATEZ
ERREBELATUAK
ditugu

B RADIO
BIDASOA

* Eguraldi honekin,
nola idortzen duzu
zure arropa?

* Arropa
lehorgailuetan
aukera haundia

* 3 urtetako
garantia

* «Finex»
finantziazio berezia

Kantonberri 1
BERA ☎ 630377

EZKONTZAK

Mateo Lertxundi Agerre eta **M^a Luisa Arizaleta Azkarraga**, Elizondo eta Etxalarkoa, maiatzaren 16an.

Rosario Goikoetxea Sagastume eta **Cristobal Goikoetxea Zabaleta**, Leitzakoak, maiatzaren 23an.

JAIOTZAK

Ibai Mitxelena Mariezkurrena, Eratsunen, urtarrilaren 14ean.

M^a Angeles Etxeberria Bikondo, Elizondon, maiatzaren 11an.

Mikel Oronoz Etxeberria, Leitzan, apirilaren 19an.

Ekaitz Astibia Goikoetxea, Leitzan, otsailaren 27an.

Leire Costas Etxegoien, Goizuetan, maiatzaren 4ean.

Zuriñe Goikoetxea Saizar, Areson, maiatzaren 21ean.

HERIOTZAK

Francisco Iturriria Otondo, Erratzun, maiatzaren 13an.

Felix Etxeberria Mendiburu, Elizondon, maiatzaren 17an.

Juan Pedro Oharriz Goienetxe, Elizondon, maiatzaren 17an.

Eugenia Irigoien Urrutia, Arizkun, maiatzaren 22an.

Pedro Larretxea Ariztia, Lekarotzen, maiatzaren 24ean.

Jose Oskariz Elizondo, Elizondon, maiatzaren 25ean.

Severiano Zabaleta Aierdi, Leitzan, maiatzaren 7an, 65 urte.

J. Bautista Zabaleta Zabaleta, Leitzan, maiatzaren 17an, 79 urte.

Jose Miguel Eskudero Zugarmurdi, Goizuetan, maiatzaren 20an, 66 urte.

Juan Cecilio Zubiri Narbarte, Goizuetan, maiatzaren 24ean, 64 urte.

Nicomedes Huizi Apezetxea, Aranon, maiatzaren 27an, 60 urte.

Jose Manuel Irigoien Peña, Beran, apirilaren 12an, 71 urte.

Rafael Gonzalez Fernandez, Beran, apirilaren 15ean, 60 urte.

M^a Concepcion Arburua Mendiberri, Beran, maiatzaren 1ean, 82 urte.

Agustin Elizalde Ruiz, Beran, maiatzaren 14ean, 39 urte.

Teresa Sanzberro Goienetxe, Beran, maiatzaren 25ean, 43 urte.

Miguel Mindegia Mariezkurrena, Ezkurran, maiatzaren 8an, 83 urte.

Doroteo Pikabea, Urrotzen, maiatzaren 24ean, 68 urte.

Zahar Etxeren eskasia nabaria da gure eskualdean

Horien artean, ezinduendako bereziki pentsatuak dauden egoitzen beharra oraindik larriagoa da

Malerreka eta Leitzalde osoan ez dago bakarrik ere. Bortzirietan eta Baztanen, hilabeteak esperoan egonda ere, ezinezko suertatzen da, batzuetan, Zahar Etxetan sartzea. Proiektuak badira, Nafarroako Gobernuaren sosa iturriak, ordea, agortu xamarrek ote dauden dirudite. Zonaldeari begira Zahar Etxeak egite-rakoan, ezinduak dira gogoan bereziki eduki beharrak. On direnentzat, herrietan soluziobide errazak sor ahal dira.

Beraz, zaharrentzako bizileku eskas dagoela erran dezakegu, dudarik gabe. Hara datu batzuk:

LESAKAKO Andre Mari Etxean 29 bizi dira eta 21 Berako San Jose etxean, gai direnak gehienak bere buruaz baliatzeko, baina ezinduak ere bai batzuk. Lehenbizikoan berria egin eta bigarrenean haunditze-ko asmoak dituzte, beteak baitaude, Bortzirietako eskariak eta beharrak ezin dituztela ase.



Lesakako Andre Mari asiloan 29 zahar bizi dira

Malerreka eta Leitzalde osoan ez dago bakarrik ere. Bortzirietan eta Baztanen, berriz, hilabeteak egon behar da esperoan eta hala ere zaila.

ESPERIENTZI berria Etxalarko Larraburua da, ezindugabeko zaharrei herrian bertan bizitzeko aukera ematen diona.

DONEZTEBEn ez dago, ezta Malerreka osoan ere; orain dabilza zerbait egiteko proiektuarekin.

ELIZONDOn bi Zahar

Etxe ditugu, Baztango Zaharren Etxea eta M^{re} Josefa Recio Etxea. Lehenbizikoan 147 bizi dira, beraietatik 34en batezinduak. Bigarrenean 70 ditugu, burua erdigalduta dutenak, horientzako bereziki prestatua dagoelarik. Bi etxeak beteak daude. Batean eta

bertzean ezezko ugari eman behar izaten dute, sartu nahi luketen hainbati.

LEITZAn, eta inguruan, ez dute Zahar Etxerik. Orain preziskiki hasi da talde bat mugitzen, Karitasen inguruan, zaharrentzako bizilekua gauzatu asmoz.

GOIZUETAn, bakarrik daudenentzat nahiz jubila-tuentzat ospitala etxea egokitze eta, komisioren bat sor dezan eskatu zaio Udalari, beronen erantzunaren zai daudelarik.

Zergatik Zahar Etxea?

Bakardadea edo etxe-koekin konponezina urteen zamari erantsi, eta hor izanen duzu bere etxea utzi eta bertze bat bilatu beharrraren arrazoia. Gaurko bizimodu aldaerak ere sortu ditu bertze arrazoiak: familiaren egoeratik ezin zaindu zaharra behar bezala. Haurrak direla, gazteagoen osasun eza, lanean etxetik kanpo orduak eman beharra dela-ta, etxean behar eta nahi baino bakar-rago egotea dagokio ataxi edo osaba zaharrari.

On direnak eta ezinduak

Gehienetan, bakarrik dagoena, urtetan aintzine-ra joana eta bere buruaz baliatzeko gauza ez dena, eri nahiz osasuntsu izan, denak batera bilduketu dira "asilo", ospitale edo erresidentzietan. Gaur, zaintza edo kuido gehiago eta hobe eskatzen eta eskeintzen den honetan, zailago zaie zaharrei gautaegun zainduko dituen etxea izatea, askotan kanpora joan beharrean aurkitzen direlarik. Eta, etxea uzteaz gain kanpora joate hori nahiko gogorra da. Osasunez ongi dabilzan bitartean, ordea, hainbertze konplikazio gabeko bizilekua herrian bertan antolatzea ez da, beharbada, hain zaila. Horixe da...

Etxalarko Zahar Etxearen eskaintza

Bizileku arruntak be-



har duen zerbitzua. Jan, egon eta lo egiteko tokia, bere beroki, telefono, telebista etabarrekin, alde batetik. Jatekoa prestatu eta mahaira atera, eta ontzi, arropa nahiz etxeko garbitasuna eginez etxean bazkalordu eta afalorduetan egonen den norbait. Ez da egingarria horrelako zerbitzu aunitz herritan?

Proiektu ederren arriskua

Bai, gure herrietan

Erresidentzi haundiak bezalako Zahar Etxea antolatu nahi badugu, erran nahi baita 24 orduetan norbait zaintzen ariz, erizaina dena gainera, gaixoak eta osasundunak, ezinduak eta ezingabeak hartuko dituen, orduan deus gabe gelditzeko edo segitzeko bidea aukeratu dugu, gehienetan. Horrelako asmoak egia bihurtzeko sosa aunitz behar baita, herri gehienek dutena baino gehia-

go. Bada errana, "onena onaren etsai". Hain osoa izanen ez bada ere, oraindik bere buruaz baliatzeko gai direnei herrian bizitzeko aukera ematea, ez dut uste hain eskeintza despreziagarria denik. Merezi du. Zerbitzu gehiago eta haundiagoren beharra duen jendea, hura aurkituko da kanpora joan beharrean, baina guttienak izanen dira, seguraski.

Zonalderako behar ditugun Zahar Etxeak, ezinduen-dako etxeak dira

Eremuka planifikatu beharrak, ezinduentzako espreski prestatutako etxeak dira, herri bakoitzak ezin duenez berea izan. Etxe hauek, dena den, ez lukete etxe erraldoi edo monstruoak izan beharko, masifikazioaren alde txarretatik ihes egin eta sorterrietatik hurbilago gerta daitezen; ezagun eta senitartekoen bisitaldiak ugarirago izanen lituzkete horrela. Malerreka eta Bortzirietako plangintza pentsatua badago ere, errealitate noiz bihurtuko den ez dakigu. Sosa ez delako edo, bata bertzearen ondotik eginen omen dira Doneztebe, Lesaka eta Berako proiektuak. Badirudi Baztan hobeki hornitua dagoela. Leitzaldea eta Goizuetak dena egiteko daukate.

PELLO APEZETXEA

Lesakako Andra Mari Asiloko langileak: «Gure lanpostua mantentzea eskatzen dugu»

Horretarako, zenbait mobilizazioen artean entzerrona burutu zuten 3 egunez

Lesakako Andra Mari
Zahar Etxean lanean
ziharduten bortz
emakumek beraien
lanpostuak galdu
dituzte berriki, asiloa
zuzentzen duen
patronatoa edo
erakunde
autonomoaren
erabakiz. Langileen
ustez despidoa
pertsonala izan da,
beraien lan
baldintzetan eta
zaharren egoeran
hobekuntzak eskatzen
zituztelako.
Geroztikan,
Udaletxean idatzi bat
aurkeztu zuten
beraien lanpostua
defendatzeko eta
zenbait mobilizazio
iragarrita dituzte
helburu berarekin.
Kontu honetaz
gehiago jakiteko,
beraiengana hurbidu
gera, baita «Andra
Mari» asiloko
patronatoaren
lehendakaria den Jose
Luis Etxegarai,
Lesakako
alkatearengana.



«Guk gure lanpostuak mantentzea nahi dugu. Baita ere zaharren arazoak begiratu behar dira eta irtenbide bat eman»

Zenbat langile eta zein lan baldintzetan egon zarete orain arte asiloan?

Monjak joan zirenean, lehendik zeuden sukaldaria eta langilearekin batera bertze bi langile sartu ginen 1988ko abuztuan. Bakoitzak egunero (larunbata eta igandea barne) 6 ordu sartzen genituen, guztira 40 ordu asteen, sei hilabetetako kontratoekin.

Orduan, 14 atton baziren eta gero gehiago ekarri zituztenean, lan egiteko jende gehiago hartzen hasi ziren. Garai hartan ez ge-

nuen gaez lan egiten, apezakin gelditzen bait ziren. Joan den urtean, gaez ere hasi ginen lanean eta bertze bi langile hartu zituzten. Horrela hasi ginen «corretornos» egiten, nahiz eta peonak bagina bezala kobratu. Kontrato berria egin ziguten, indefinitoa, asiloaren erregulazio berria bitarte, eta orain gertatu da hori.

Beraz, kontratua bukatu zaizue?

Kontratua bukatu da, baina hori baino lehen urte baterako kontratoa ginen

zigutela erran ziguten. Gu ados gelditu ginen. Orduan, finikitoa astelehen batez firmatu eta asteartean kontratoa firmatzea eskeini ziguten. Guk erran genuen ez genuela finikitoa firmatu nahi baino kontratoa bai. Astelehenean ez baginen agertzen, asteartean finikitoa firmatu beharko genuela erran ziguten. Eta guk, bueno, obligatzen badiguzue, egingen dugu... Astelehen arratsean bilera urgentea izan zuten asiloko patronatokoak Udaletxean. Entetu ginen ez zi-

gutela kontratorik eginen, ezta hortaz abisatuko ere. Asteartean, portzikaso joan ginen eta erran ziguten kontratorik ez zegoela guretzat, alkateak horrela agindu zuelako. Orduan kanpoan gelditu ginen, parroan izena emana genduelako.

Orduan, Herriko Etxetik ez dizute esplikaziorik eman...

Ez. Gero egin genuen patronatoarekin bilera bat, guk konbokatuta, baina ez ziguten esplikaziorik eman. Bertze kontrato bat firmatuz gero, 3 fija bezala gelditzen ginen eta "barrera legal" bat zutela erran zuen alkateak -patronatoko lehendakariak-, ez bait zekiten asiloa itxi edo irekia mantendu behar duten. Hori aitzakia bertzerik ez da. Guk erraten genuen badaudela bertze kontratoak, asiloa akautzen bada gu kanpoan gelditzen gara eta listo!

Gainera, patronatoaren estatutoetan aintzineko kontratoa bukatu bezain laister, patronatoak langile berak kontratatatu beharko dituela paratzen du.

Honen aintzinean, zuek zer eskatzen duzue?

Guk gure lanpostua mantentzea eskatzen dugu. Baita ere zaharren arazoak begiratu behar dira. Denbora aunitz daramate gurekin eta konfiantza hartzea aunitz kostatzen da. Horregatik, despetzera joan ginenean, haiek negarrez hasi, gu ere bai eta azke-

Jose Luis Etxegarai: «Asiloa noiznahi itxi daiteke eta ezin dugu langile fijos hartu»

88an monjak joan zirenean, Lesakako zaharrei hor izateko aukera ematea erabaki genuen. Orduan lan eskaria egiten zutenei, iritsi ahala ematen genien, inolako titulorik eskatu gabe. Kontratoak berritzen joan ziren baina langile batzuk kontrato indefinitoa eskatzen hasi ziren. Guk egin genien kontratoaren 6. klausulan, "asiloaren erregulazio berria egin arteko" kontratoa zela erraten zen, eta hori orain pasatu da.

Halere, gure idea zen

langile hauei urtebeteko kontratoa egitea, baina tarte honetan, «dekretazoarekin» lege aldaketa egon da.

Asesoreak erran digunez, orain urtebeteko kon-

trato hori ezin da egin.

Bertze arazoa, defizitarena da: Residentziak defizitarik ez balu eta aintzineraren segitzeko aukera segurua bagenuen, langile fijos hartzeko problemarik ez genuen izanen.

Kontua da, orain asiloak espediente bat duela, etxea oso zaharra dago eta Gobernuak ez du baimenik ematen bertze bat egiteko. Asiloa hemendik hilabete guttitara itxi daiteke eta kondizione hauetan ezin dugu inor fijo egin.



nean denak negarrez hasi ginen.

Hau konpondu bitartean, nor ari da Asiloan lanean?

Momentuz, eta Udaltxeak atera duen konbokatorkia erabaki artean, hiru sustituta daude, normalean lau pertsonak egiten genuen lana eginez. Honek erran nahi du egunean 16 ordu ere sartzen dituztela. Emakume hauek gainera, ez dute «auxiliar de clínica» titulua, guri hasieratik eskatu zigutena. Bertzaldetik herriari galdetu nahi diogu ea badakien patronato hau nola osatu den, pixko bat «a dedo» egin dela dirudielako. Guk proposatu genuen patronatoa behar den jendearekin osatzea; mediku bat, asis-



tenta soziala, langile bat...

Mobilizazioak ere prest dituzue...

Bai, hilabete hasieran eginen dugun entzerronaz gain -hilaren lehenetik 3ra egin asmo zuten-, prentsaurreko bat eginen dugu eta orri informatiboak zabalduko ditugu herrian ze-

har, jendeak egitan zer gertatu den jakin dezan, gauzak garbiak uzteko. Izan ere, gezur aunitz zabaldu da, ez genduela kontratoa firmatu nahi, etabar... Udaletxea ere juiziora eramanez dugu.

AITOR AROZENA

Nafarroako hainbat Herri Kirol txapelketa jokatu ziren Elizondon Olinpiadetara begira

Bartzelonarako txartelak, Bixente, Mikel Saralegi, Larratxea anaiak eta Eugik lortu

Maiatzaren 24ean burutu ziren Elizondoko frontoian aurtengo zenbait Herri Kirol txapelketa, Olinpiadetan egingen den Euskal Herriko txapelketa nagusirako Nafarroako taldea aukeratzeko ere baliogarria zena.

Ingudea izan zen lehen txapelketa eta bertan, Otxagabiako Bixente suertatu zen garaile 81 kolperekin, nahiz eta Zubietako Loiarte (faboritoa) kolpe bakar bategatik giblean gelditu.

Txinga eramate txapelketan, Patxi Larretxeak bere nagusitasuna erakutsi zuen, guztira 14 plaza eta 11 metro eginez, bere areoiak urruti xamar utziz.

Ondoren, gurdi jokoa egin zen, hiru partaideren artean Mikel Saralegi leitzarrak jantzi zuelarik txapela, 350 kilotako gurdiari lau itzuli eta bi metro emanez.

Lasto altxatze lanetan aritu ziren 3 partaideak igantziarrak izan ziren. Bertan, 15 urtetako Eduardo Eugi izan zen txapeldun 9 jasoaldirekin, Miguel Angel Etxartek 8 aldiz altxatu zuen aintzinean zuen lasto fardoa eta Luis Mari Zelaietak, 6 aldiz.


Aizkolari txapelketan berriz, 45 ontzako lau en-



MATTARI

borrak lehenbaitlehen ebakitzean zegoen norgehiagoka eta Donato Larretxea aranztarra gailendu zen lan hori 3 minutu eta 32 segundutan burutuz. Bigarren Floren Nazabal Etxarri Aranatzko gaztea izan zen (3 minutu eta 55 segundu) eta hirugarren Mikel Mingia zubietarra, aurtengo Nafarroako txapelduna, lan bera egiteko lau minutu eta 27 segundu erabiliz.

Azkenik, zaku laisterketa egin zen eta bertan Ultzamako taldeak lortu zuen garaipena arraioztarren aintzinetik, ikuskizun bikaina eskainiz. Orain, Bartzelonara joateko presatzea gelditzen da.



FUTBOL-SALA

Denboraldia bukatu dute eskualdeko taldeek



Bortziriak Futbol Sala taldea

ARTXIBOA




Beti Gazte Futbol Sala taldea

ARTXIBOA

Bortziriak eta Beti Gazte futbol-sala taldeak bukatutzat eman dute dagoeneko aurtengo denboraldia. Bortziriak taldeak ezin izan dio eutsi iaz lortutako mailari, Gipuzkoako bigarren mailari, hain zuzen. Nahiko ongi hasi baziren ere, azken aldian maila aldaketa nabaritu zuten eta azken postuan bukatu dute.

Beti Gazte taldeak bere aldetik, denboraldi bikaina burutu du eta Gipuzkoako hirugarren mailan, hirugarren postuan bukatu dute. Halere, ligan zehar lehen postuan ere ibili dira, baina azkenean ezin izan diote eutsi postu horri. Momentuz, ez daukate igotzeko aukerarik, bi lehenak bait daukate zuzenean igotzeko eskubidea.



Hilaren 14ean burutuko da Doneztebeko XV. Krossa *Sari garrantzitsuak banatuko dira bertan*

Ekainaren 14ean burutuko da azken urteetan hainbat arrakasta izaten ari den Doneztebeko Herri krosaren hamabosgarren edizioa. Aurten aintzindu egin da Doneztebeko Herri Krossaren eguna eta arrazoia zera da: jendearen partaidetza ahalik eta arrakastasuen edo ugariena izan dedila.

Horretan ari dira zenbait pertsona, laisterkari talde eta klub ezberdinekin harremanetan, korrikalari onak etortzeko. Bertze urtetan sari ausarki ematen bazen ere, dirudienez aurten hobeagoak izanen dire. Antolatzaileak, Erreka Kirol taldea eta Doneztebeko Udala izanen dira urtero bezalaxe.

Hamabostaldiko jokaldiak



Eugi 15 urtetako Igantziko lasto-altxatzailea. 15 urtetan Bartzelonako Olinpiadetarako txartela lortu zuen, lasto-altxatze espezialitatean. Seguraski ez dira izanen bere adineko aunitz Joko Olinpiko horietan.



Mikel Mindegia aizkolari zubietarra. Nafarroako eta Euskal Herriko hainbat txapelketa irabazi dituen aizkolaria ez zen ongi aritu Elizondon. Baserriko lanak ere izanen zuten hortan zerikusirik.

Etxebizitzak

• **Beran** edo inguruetan etxebizitza merke baten beharrean nago. 631136 ☎ (Elena).

• **Elizondon** pisua salgai, 3 logela, jangela, sukaldea, bista arras onak. Txokoton. Prezioa 6 miloi. ☎ 452048.

• **Beran**, pisu hutsa alokatzeko bilatzen dugu. ☎ 630072 (Ana).

• **Eratsunen** txalet bat salgai. 3 solairu, 50 m² bakoitzean, bista onak. 943-615069 ☎.

• **Oronotz-Mugairiko** erdian 2 pisu eder saltzen dira prezio arras interesgarrietan. ☎ 45 32 99.

• **Elizondon** pisua salgai, 3 logela, jangela, sukaldea, bainua, bi balkoi eta telefonoa. 6 milioi pzta. ☎ 581001.

Lana

• **Zurgin** lanak eginen nituzke (kutzillatzea, zepillatzea eta barnizatzea). ☎ 635136 (Pedro Mendikoa). Etxalar.

• **17 urteko** neska batek haurrak zainduko lituzke Beran. 630516 (Maitane).

Denetarik

• **Ekipoak** alokatzen dira udalentzat, bertsolarentzat, mitinetarako, etabar. Laia musika dendara deitu. 631059.

• **Lesakan** lokal bat traspasatzen da. Deitu 10tik 1etara eta 5etik 8etara 637410 ☎.

• **Zugarramurdin** "Akelarre" Jatetxea alokatzen da. Deitu 599094 ☎.

• **Belaia** eskeintzen da, nahi duenak belarra egiteko. ☎ 450621 (Oitz).

Salerosketak

• **Bulego-mahaittoa**, ahal bada kajoiduna erosiko genuke. ☎ 451555.

• **Kamioi** bat lana eta guzti salgai. 452220 ☎.

• **Bi urtetako** behia bere aretzearekin salgai. 634074

• **Komedoreko** armario bat, mahaj plegablea eta berari dagozkion 6 aulki Leitza salgai. ☎ 510132 (eguerditan).

• **Zakur** collie lassie salgai. 6 urtetakoa, emea, lagun goxoa. ☎ 510132.

• **Egongelarako** arma-

ria bitrinarekin salgai. ☎ 630289 (8etatik aintzina).

• **Bateria** "Pear" markakoa konpletoa, "Paiste" platoak, 150.000 pztatan salgai. ☎ 637346 (Tomas).

• **Belarra** igotzeko elebadora motor elketriko (industrial) haundiarekin salgai. 15 metro tubo ere baditu. 4532 68 ☎ (1etatik -5ak arte).

• **Sorteo** batetan tokatutako mendi-bizikleta, merke salduko genuke. Estrenatu gabea. ☎ 581023.

Harremanak

• **Leitzako** Egoi Bengoetxeari: zorionak, berandu xamar bada ere.

• **Lesakako** Ebari: zorionak bere 18. urtebetetzean (ekainaren 6an), bere familiaren partez.

• **Aresoko** Teresari zorionak, maiatzan 22an partez, eta Leitzako Patxiri erean partetik. Asko maitet zaituzteuk ote gara...

• **Leitzako** Arantxa Agirrerri: zorionak zure urtebetetzeagatik. Goizuetako lagunak.

• **Kaixo** Eno! Lau hitz hauek esateko maite zaitudala. Zure kuttuna.

• **Euskal** Herriko mendi-itxaso bazterrek politak izanez ere, zu ederragoa. Fel.

• **Leitzako** kotillarentzat: Isiltzeko ia betirako, horrela Leitza politagoa izanen da eta. Leitzako biktimaren partez.

• **Peperentzat** zorionak bere urtebetetzean (ekainaren 6) familiaren partez.

• **Urdazubiko** Aliziarrentzat, zorionak! zure 20 urtebetetzean ongi pasatu. Ia gonbidatzen gaituzun txanpan pixkat edaterat. Zure lagunak.

• **Aresoko** Juana M^a Saizarerri: zorionak zure umearengatik. Asko maitatzen zaituzten batzuek. Cristina eta Garbiñe.

• **Elizondoko** Loles eta Idoiari zorionak zuen urtebetetzean eta aunitz urtez. Elizondoko lagunak.

• **Arizkungo** Ttufiri: zu zara gure bihotzeko azukre kozkor haundie. Ondo ibili Mari Pili. "Las impresenables"

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua: _____

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK _____

HELBIDEA _____

HERRIA _____ Tfnoa: _____

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

SAN MARTIN LANBIDE ESKOLA

Tfnoa: 59 20 06 – Oronotz-Mugairi




INGELES IKASTAROA UZTAILAN

Bertze urtetan bezala, aurten ere,
ingeles ikastaroa uztailan
goizez 9,15etatik 13,45 orduetara

APUNTATZEKO deitu 592006 Tfnora

BERA

BIDASOA 60 ☎ 948/631443
ERAKUSKETA BERRIA



MOBLEAK METS

BIDASOA Karrika 45, ☎ 948 / 630537

LOGELAK, EGONGELAK, MAHAIAK, AULKIAK, Etab...



SUKALDEAK



BAINUAK



PARETAN SARTZEKO
ARMAIRUAK

ZONALDEKO 1. GASNA LEHIAKETA

BORTZIRIAK / BAZTAN / MALERREKA

Etxalarren, ekainaren 7an, Igandea, goizeko 11etan

LEHIAKETAREN OINARRIAK

- 1.- Bortziriak, Malerreka eta Baztanen bizi diren artzai edo gasna egileak parte har dezakete.
- 2.- Ardi gasna txapelketa da.
- 3.- Egile bakoitzak gasna bakarra aurkez dezake.
- 4.- Gasna bakoitzaren truke 1.300 pzta. emanen da.
- 5.- Gasnakekainaren 7an, goizeko 11ak baino lehenago ekarri beharko dira Etxalarko Pilota plazara.
- 6.- Sariak: 1.- 12.000 pzta eta trofeoa
2.- 8.000 pzta eta trofeoa
3.- 5.000 pzta eta trofeoa
- 7.- Gasnak, lehiaketa honen antolatzailen eskutan geldituko dira.

Informazio gehiago 63 50 20 Telefonoan

OHARRA: Nahi izanez gero, gasna gehiago ekar daiteke plazan saltzeko.

Laguntzaile:

GAN NAFARROAKO AURREZKI KUTXA



ALMACENES ETXANIZ, S.A.

Lesakako
Iturria anaiak

ESKUALDEKO AUKERARIK HAUNDIENA

GRES ETA AZULEJOETAN

AZKEN MODELOAK ERA GUZIETAKO PREZIOTAN

Juan Arana, 3

Tfnoa: (943)

61 17 67

IRUN